Bizkaia

Bilbao

Basartu-Zorrotza



PRIMITIVA MEATEGIA
MINA PRIMITIVA

Primitiva meategia Arraiz mendiaren hegaletan irekitako lurpeko meazuloen bidez ustiatu zuten, eta meazuloetara iristeko plano inklinatuak erabiltzen zituzten. Meategi honetatik burdina oligistoa eta ganga buztintsudun limonita ateratzen zuten; garrantzi handia izan du, ustiapen trinkoa eta etengabea izan baitu. 1869an erregistratu zuten Ignazio Ubietaren aginduz, baina handik gutxira bi konpainia ingeles ziren jabe: Wright Butt Co.Lid. eta Landore Siemens Steel Co. 1909an José McLennan jaunak erosi zuen, eta 1949an eskubideak Lemoako Cementos Portland enpresari eskualdatu zitzaizkion.

Bizkaiko lehenengo aireko tranbia garrantzitsua Primitiva meategiak jarri zuen 1881ean, 2.887 metro zituen eta Mc Lennan, Latorre eta Garai izan ziren egileak. Tranbia lineak kargatzeko geltoki bat zuen meategian eta deskargatzeko beste bat Zorrotzan; era berean, erpinetako beste geltoki batzuk ere bazituen. Guztiak ere Londresko Ropeways Ltd. enpresak muntatu zituen, patentatutako polea-sistema batekin. Bederatzi ordutan 600 tona garraiatzeko gai zen, eta abantaila bat zuen: karga aldapa behera eramaten zenez, motorraren indarra ia-ia abian jartzeko bakarrik erabili behar zen eta, hortaz, martxan zegoen bitartean energia gutxi kontsumitzen zuen.

Egun, Arraiz mendiaren hegaletan sakabanaturik dauden aztarnez gain (horien artean oinplano karratuko labe bat, meatze-aho bat, kargategi bat, mea isurtzeko hodi bat, eta plano makurtu bat) eta Zorrotzako kargategiaz gain, 1897. urtearen inguruan meategiko porlan-fabrikaren ondoan eraikitako bi kiskaltze-labe kontserbatzen dira, gaur egun Bilboko erraustegiaren lurretan. Ageriko adreiluekin eginak daude, kanpoaldea mailakatua dute eta barrualdeko ebakidura zirkularra da, adreilu erregogorrekin. Deskarga-ahoak txaranbelduak dira, eta arku beheratua dute; metalezko bi orriko ateak dituzte, bai eta eskuzko helduleku horizontalak ere. 2012en monumentu izendatu dute Primitiva meategia.

La mina Primitiva se explotó en galerías subterráneas, abiertas en las faldas del Arraiz, a las que se accedía mediante planos inclinados. Esta mina de hierro oligisto y limonita con ganga aveillosa ha tenido gran importancia por su explotación intensa y constante. Registrada en 1869 por encargo de Ignacio Ubieta, pronto aparecen como propietarias dos compañías inglesas: Wright Butt Co. Lid. y Landore Siemens Steel Co. En 1909 la adquirió José McLennan, y en 1949 se transfirieron sus derechos a Cementos Portland de Lemoa.

La Primitiva instaló en 1881 el primer tranvía aéreo importante de Bizkaia, de 2.887 metros, obra de Mac Lennan, Latorre y Garay. Estaba compuesto por una estación de carga, en la mina, y otra de descarga, en Zorrotza, junto con otras estaciones de ángulo, todo montado por la Ropeways Ltd. de Londres, con un sistema patentado de poleas. Podía transportar 600 toneladas en 9 horas, y tenía la ventaja de que, siendo la carga en pendiente, necesitaba la fuerza del motor casi únicamente para el arranque, sin apenas consumir durante su funcionamiento.

Actualmente, además de los restos dispersos en las faldas del Arraiz (entre ellos un horno de planta cuadrada, una bocamina, un cargadero, una vertedera y un plano inclinado) y del cargadero de Zorrotza, se conservan dos hornos de calcinación, construidos hacia 1897 junto a la fábrica de cemento de la mina, hoy en terrenos de la incineradora de Bilbao. Están construidos en ladrillo visto y son de exterior escalonado y sección interior circular, con ladrillo refractario. Las bocas de descarga, abocinadas y en arco rebajado, tienen puertas metálicas de doble hoja y tirador manual y horizontal, respectivamente. La mina Primitiva ha sido declarada monumento en 2012.